## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko urriaren 26ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

— **Foru Dekretua:**

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2021 Foru Dekretua, urriaren 26koa. Onespena ematea toki erakundeetan etxebizitza zaharberritzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrei eta 2021 eta 2022rako deialdiari.

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 622/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea foru arauaren proiektua, errepideko garraioaren arloko foru eguneratzearen hitzarmena berresteko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 623/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea Arbex Digitaprint SLU sozietateari behin betiko bermea likidatzea eta itzultzea, Kontseiluaren ekainaren 27ko 367/2017 Erabakiaren bidez adjudikatutako zerbitzuaren kontratazioaren baitan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 624/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko gizarte berrikuntzako sarien deialdia.

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 625/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea zuzeneko dirulaguntza bat ematea Egibideri eta Ikaslan-Arabari (LH RIS 3) eta horrekin lotutako baldintzak eta konpromisoak ezartzen dituen hitzarmena sinatzea.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 626/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko foru arauaren proiektua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 627/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Behin betiko onestea ondasun higiezinen gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketa, Guardiako udalerrirako egina.

Foru Gobernu Kontseiluaren 628/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onespena ematea Kontuhartzailetza eta Kontrol Zerbitzuaren eragozpen txostenak aurkeztu zaizkien hainbat jarduketa baliozkotzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 629/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onespena ematea 28/2021 konpromiso kreditua sortzeko espedienteari, 52.030,00 euroko zenbatekoaz, 2022ko urteari dagokiona, funtsez hornitzeko “Higiezinen merkatuari buruzko azterketa AKK” partida, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 630/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onespena ematea 34/2021 konpromiso kreditua 2021eko urtekotik 2022kora birbanatzeko espedienteari, 2.500,00 euroko


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

zenbatekoaz, gastuen egoerako "Kultura eta sorkuntza industriak 2019. AKK" partidan, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 631/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko "PlanÁ: kultura arloa babestea" partida, 2021eko kultura bonuen aparteko deialdi bat onesteko, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 632/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onespena ematea 7/2021 kreditu transferentziaren espedienteari, 4.692,59 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Prentsa, aldizkariak eta liburuak" eta "Ordenagailuak eta ekipamendu nagusiak", Gazteriaren Foru Erakundeak hala eskatuta.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 633/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Kontratazio espedientea onestea, prozedura ireki bidez kontratatzeko udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integralerako informatika sistemaren (aplikazio informatikoak eta erabiltzaileentzako arreta zerbitzua edo Call Center delakoa) mantentze lanak, 2022rako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 634/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Ez onartzea Eginaren Eginez Asociación de personas con discapacidad física de Álava elkartearen izenean, uztailaren 20ko 450/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa. Erabaki horren bidez, Arabako Suhiltzaileak erakunde autonomoaren 2020rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onetsi zen.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 635/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea "A-3112 errepidea, 13,10 kilometro puntutik 13,47 kilometro puntura (Egileta), egokitzeko eta trazadura hobetzeko proiektuaren" azken ziurtagiria eta obren gehikuntza 239.225,34 eurotan, BEZa barne.

Foru Gobernu Kontseiluaren 636/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea 2022ko urriaren 31ra arte luzatzea gatzez hornitzeko kontratua, errepideen foru sarean izotzik sor ez dadin eta, sortuz gero, gesaltzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 637/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea 2022ko urriaren 31ra arte luzatzea neguko bidezaintza kanpainetarako gatzunez hornitzeko kontratua, errepideen foru sarean izotzik sor ez dadin eta, sortuz gero, gesaltzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 638/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Zati batean baiestea Autobuses La Unión SAk eta La Burundesa SAUk Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 29ko 404/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 639/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Zati batean baiestea Autobuses Cuadra SAk Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 29ko 405/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 640/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Zati batean baiestea Autobuses Cuadra SAk Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 29ko 406/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 641/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Baiestea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 496/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa (Esp.: 05-2021-5368).

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 642/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea Kultura bonuen 2021eko aparteko deialdia, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura jarduera suspertzeko laguntza gisa.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Foru Gobernu Kontseiluaren 643/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Onestea Arabako hainbat lurralde kirol federaziorekin 35 lankidetza hitzarmen sinatzea, eskola kirola kudeatzeko 2021-2022 ikasturtean.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 644/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Zati batean baiestea Kontseiluaren uztailaren 13ko 440/2021 Erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.11.03 06:49:37 Z